

## UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

### BIOLOGIAKO AZTERKETA

2008-2009 ikasturtea


#### JARRAIBIDEAK

Bi aukeretatik bat hautatu, eta erantzun aukera horrek dauzkan bi zatietako aztergaiei.

### A AUKERA

#### 1. ZATIA (5 puntu)

Irudian kromosoma baten mikroargazkia ikusten da.



#### Aztergaiak

- a. Kromosomen egitura: deskribatu kromosoma metafasiko batean bereiz daitezkeen zatiak. (1,25 puntu)
- b. Zer da kode genetikoa? Azal itzazu bere ezaugarriak. (1,25 puntu)
- c. Deskribatu laburki transkripzio prozesua zelula eukariotoetan. (1,25 puntu)
- d. Esan zein diren mRNA izenekoak izan ditzakeen transkripzio-ondoko aldaketak. (1,25 puntu)

## **2. ZATIA (5 puntu)**

### **Aztergaiak**


- a.** Zergatik dira triazilgliceridoak lipido saponifikagarriak eta terpenoak, berriz, ez saponifikagarriak? Azaldu laburki bi talde horien egitura molekularra. (1,25 puntu)
  
- b.** Aminoazidoak: ezaugarriak eta sailkapena R taldearen izaeraren arabera (1,25 puntu)
  
- c.** Entzimak: definizioa. Azaldu, arrazoituz, zertan datzan entzimen espezifikotasuna.(1,25 puntu)
  
- d.** Zer dira bakterioak? Esan zein diren beren antolaketa- eta funtzionamendu-ezaugarri nagusiak. (1,25 puntu)

## B AUKERA

### 1. ZATIA (5 puntu)

Irudian ATP sintasa kloroplastikoaren egiturazko eredu eskematikoa erakusten da.

#### Aztergaiak



a. Fotofosforilazioa fotosintesiaren argitako fasean gertatzen den prozesua da; zertan datza prozesu hori eta non gertatzen da? Zenbat fotofosforilazio mota dago? (1,25 puntu)

b. Landareen zelulek kloroplastoak eta mitokondrioak dauzkate. Kontuan harturik kloroplastoek energia sortzen dutela: zertarako behar dituzte mitokondrioak? Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)

c. Fotosintesia: azaldu laburki, eskema baten laguntzaz, prozesuan bereiz daitezkeen bi faseak. (1,25 puntu)

d. Azaldu difusio erraztuaren eta garraio aktiboaren arteko ezberdintasunak. (1,25 puntu)

**2. ZATIA (5 puntu)**

**Aztergaiak**

- a. Proteinak: propietateak eta funtzioak. **(1,25 puntu)**
  
- b. Definitu honako termino hauek, eta eman bakoitzari buruzko adibide bat: gantz-azidoa, aminoazidoa, monosakaridoa eta nukleotidoa. **(1,25 puntu)**
  
- c. DNA polimerasa ez da gai DNA kate bat hasteko. Azaldu nola konpontzen den arazoa. Zer dira Okazaki-zatiak? **(1,25 puntu)**
  
- d. Definitu honako termino hauek, eta eman bakoitzari buruzko adibide bat: mikroorganismoa, birusa, infekzioa eta toxina. **(1,25 puntu)**